


Copyleft-a eta edizioa: kasu praktiko bat

Pablo AZPIROZ IRIBAS*

 Copyleft hitza, bere zantzurik ez duzula baina bat-batean nonahi ikusten hasten zaren hitz horietakoa da. Berez, lege estrategia moduan sortu zen programazio informatikoaren alorrean, software librearen aldeko mugimenduaren beharrek bulztatua. Hau honela izanik, copyleft delakoa lege kontzeptua baino kontzeptu politikoa da, eta horrexegatik software librearen aldeko mugimenduak berariazko hainbat tresna juridiko garatu behar izan ditu: GNU lizentziak, Free Software Foundationek egindakoak alegia.

Ekimen honetan oinarrituta, hainbat musikarik, idazlek, editorek eta esparru guztietako sortzailek hasi dira erabiltzen copyleftak ziurtatutako zenbait askatasun beren lanekiko. Askatasunok, laburbilduz, ahalbidetzen dute hauen lanen kopia egitea, eraldatzea, edo lan hauek eratorri eta banatzea —xede komertzialekin edo gabe—. Hala ere, kultura-alorrera etorrita, egile askok askatasun hauetako batzuk ezinbestekotzat jotzen ez dituztenez eta, batez ere, lan askok inbertsio handien beharra dutela eta beren banaketa komertziala librea izanez gero ez lirakeela sortuko kontuan harturik, nolabaiteko onarpena dago copyleftak berma ditzan, gutxienez, kopiatzeko askatasuna eta banaketa ez komertziala egiteko askatasuna. Gauzak honela, eta kultura “askatzeko asmoz”, 90eko hamarkadaren hondarrean hainbat eragile hasi ziren garatzen bereziki kulturari egokitzen ahal ziztaizkion lizentziak, eta hauen artean badira batzuk gailendu direnak: Creative Commons-ek atunduriko lizentziak.

53



Berez, Creative Commons 2001ean sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta sormenezko lanak partekatzeko oztopo legalak murriztea du helburu. Lizentzia sorta bat eskaintzen du, bakoitzak babes edota askatasun maila batekin. Era honetan, lizentziak egokitzen dira egilearen beharretara zein honek berak bere lanendako baimentzen duen erabilpenetara. Creative Commons lizentziarik murriztaileenak gutxieneko askatasun hauexek bermatzen ditu: kopiatzekoa, banatzekoa, erakustekoa eta testuaren interpretatzekoa, betiere jatorrizko egilea aitortzen bada, xede komertzialekin erabiltzen ez bada, eta lana ez bada eraldatzen, eratorritzen edota berregiten. Gaur egun 30 estaturen baino gehiagoren legedietara daude egokituta, eta gurera etorrita, Bartzelonako Unibertsitateak prestatu zituen egokitzapenak —euskara ere itzulita daude—.

Edizioaren alorrera hurbilduz, jakina da Jabetza Intelektualaren Legeak hainbat eskubide moral zein ekonomiko esleitzen dizkiela egileei; hala eta guztiz ere, kasu gehientsuenetan aipatu eskubide ekonomikoak argitaletxeen eskuetan gelditzen dira edizio-kontratua sinatu ondoren, hau da, idazlearen kontroletik urrutira. Beraz, lanen errentagarritasuna desagertzen

* Nafarroako Liburutegi Nagusia

denean —hilabete gutxiren kontua izan ohi da—, argitaletxeen interesa akitu eta liburu asko eskuraezin bihurtzen dira. Hala ere, copyleftaren bultzatzaileek diote argitaletxeen negozio-eredua testuei gehitutako balio erantsian oinarritu beharko litzatekeela eta ez oraingo lanaren gaineko monopolio egoeran. Izan ere, uste okerraren kontra, frogatutzat ematen dute forma-tuok —digitala eta liburuak— ez diotela traba egiten elkarri: edizio digitalari esker, bai egileak bai liburuak ezagunagoak egiten dira, web-aren bidez benetan interesatuak areagotu egiten dira, eta hauetako gehien-gehienok paperezko edizio ongi zaindua erosteko prest agertzen dira. Hortaz, Creative Commons lizentziapean argitaratutako lan baten banaketa komertziala editore bakar baten esku gelditzen ahal denez, honek bakarrik izanen du aukera errentagarri-tasun ekonomikoa lortzeko; beraz, errantagarritasunak bere horretan segitzen du.

Aldi berean, kulturaren eskuragarritasunaren ikuspegitik, gehienez ere hainbat bibliotekatan topatzen ahal diren lan arraro edota minoritarioak, denon eskura izanen genituzke Interneten bitartez. Era berean, egile ezezagun asko eta askoren lanek aukera gehiago izanen lukete, eta ez dezagun ahantzi hauek —idazle gehienek alegia— irakurriak izateko idazten dutela, eta ez idaztea ogibide dutelako.

Bestalde, dagoeneko badira filosofia hau aurrera eramaten saiatzen direnak. Traficantes de Sueños Madril hiriko irabazi-asmorik gabeko elkarte kulturala da eta 1996an sortu zen zenbait giza mugimenduren topagune izateko helburuarekin. Egun, beste eginkizun batzuen artean, liburudenda, bana-keta-etxe eta argitaletxe lanetan ari da, eta kolektiboa osatzen duten 15 lagunetatik 9k badute ordainsaririk.



54

Gaur egun, seguraski, bada argitaletxe bakarra Europan —Estatu espainola barne— kasik bere katalogo osoko lanak Creative Commons lizentziapean dituena. Horretaz gain, beraiek egindako edizio digitalak ere paratu dituzte sarean eskuragai, eta bestaldetik, beste argitaletxe batzuk ere animatu dituzte bide bera har dezaten: Virus, Atrapasueños, Likiniano Elkartea... Beraien esanetan, Traficantes de Sueños ekimen militantea bada ere, errentagarritasun ekonomiko txukuna lortu du negozio-eredu horren bitartez.

Urterik urte 12 bat titulu berri argitaratzen dituzte, beti gizarte-gaietara lotuak: filosofia politikoaz, hirigintzaz, feminismoaz, giza mugimenduez eta abar. Normalean egileek ez dakite deus ere copyleft eta inguruko lizentzien gainean; hori dela eta, Traficantes de Sueños-ekoek beraiek jakinarazten diete hauei aukera hortxe dagoela, eta kasu ia guztietan egileek ontzat ematen dute ideia, zeren liburua erosiko luketenengana baino askoz ere jende gehiagorengaino iristeko parada ematen baitie.

Argitaletxe gehienak arras kontserbadore agertzen dira ohiko negozio-eredutik at diren ekimenekin. Berriz, argitaletxe alternatiboak —gutxiengo nabarmena oraindik— gero eta gehiago ari dira barneratzen copyleft filosofia. Honelako egoeraren aurrean azken hauek gremioaren berezko kontserbadorismo eta paradigma berriaren potentzialitatea ez ezagutzea dituzte etsai. Zernahi gisatara ere, oraingoz pisu gutxi dutelako, baina aurrerantzean copyleft filosofia dezente hedatuko balitz, litekeena da argitaletxe handiek eta CEDROk bat egitea beren pribilegio posizioa mantentzeko —ezin hobeki ezagutzen ditugu beren kanon famatuak: liburutegien maileguntzakoak, tresna erreproduzigailuentzakoak...—.

Azkenik, nahiz eta azaletik aipatu ere, euskaraz argitaratzen duten enpresen artean oso nabarmentzekoa da Susaren kasua. Izan ere, euskarazko literaturaren gaineko kalitate handiko baliabide eta eduki digitalak garatu eta denon eskura paratuz gain —armiarma webgunea—, beraiekin lan egiten duten egileen onarpena lortuz gero, hasi dira “askapen” batzuk egiten: liburuak liburudendetan salgai atera baino egun oso bat lehenago izaten dituzte eskuragarri, lanen komertzializazioa hasi zenez geroztik urtebeteko tarte pasatu denean Interneten paratzen dituzte liburuak, eta abar.



Gauzak honela, gutxika-gutxika agertzen ari diren seinaleon arabera —copyleft, open access mugimendua...— paradigma aldaketa baten aurrean izanen ginateke edizioaren alorrean ere. Ikusi behar.

Interneteko helbide batzuk gehiago jakiteko

<http://www.fsf.org/>

Free Software Foundation-en webgunea. Bertan software libreari buruzko era guztietako informazioa aurkitzen ahal da —historia, lizentziak, baliabideak...—. Baditu atal geografiko batzuk, bakoitzak bere webgunearekin.

<http://creativecommons.org/>

Izen bereko irabazi-asmorik gabeko erakundearen webgunea. Bertan dago berak sortutako lizentzien gaineko jakin beharreko guztia. Halaber, erakunde honek ere baditu bere atalak hainbat jurisdikziori egokituak.

<http://www.traficantes.net/>

Traficantes de Sueños argitaletxearen webgunea. Honetan, bere filosofiaren aldeko edukiez gain, bere lan-eginkizunekin zerikusia duten atalak aurkezten dituzte: liburudenda, banaketa-etxea eta argitaletxea.

http://biblioweb.sindominio.net/telematica/faq_edicion.html

Helbide honetan eskuragarri dago Traficantes de Sueños-ekoek prestatutako “FAQ sobre edición y copyleft”. Dokumentu hauxe oso argigarria da gai honetaz iritzi bizkorra eta zehatza nahi dutenendako.

<http://www.manualcopyleft.net/>

Goiko helbidean gaian benetan sakondu nahi dutenek dokumentu ezin egokiagoa topatuko dute: “Copyleft: manual de uso”. Hau ere Traficantes de Sueños-ekoek editatu dute —jakina Creative Commons lizentziapean— eta edizioaren, musikaren, artearen eta beste zenbait esparruren hainbat adituk hartu dute parte.

<http://www.armiarma.com/>

Susa argialetxeak eskeinitako webgune aparta. Bertan euskarazko literaturari buruzko mota askotako baliabideak dira guztion eskura: liburu osoak, kritikak, artikulak, eta abar. Benetan gomendagarria dela bere edukietan barna buelta bat ematea —baita ikuspegi profesionaletik ere—.